

GLOBAL INNOVA- TION DAY 2024

BERRIKUNTZA-KASU
PRAKTIKOEN
DEIALDIA

DEIAL- DIAREN OINARRIAK

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

BAIC BASQUE ARTIFICIAL
INTELLIGENCE
CENTER

(bcam)
basque center for applied mathematics

0. TESTUINGURUA

2024ko azaroan egingo da **Global Innovation Day** jardunaldiaren hamahirugarren edizioa. Innobasquek, Berrikuntzaren Euskal Agentziak, antolatutako topaketa horretan berrikuntzaren garrantzia azpimarratzen da gizarte osoaren aurrean, eta Euskadik lurralde berritzaile gisa duen lekua nabarmentzen da.

Global Innovation Day jardunaldiaren edizio honetako helburua honako hau da: adimen artifizialera eta haren alderdi sortzailera bideratutako dibulgazio-, sentsibilizazio- eta lotura-gune bat sortzea. Horretarako, erakunde hauek ditugu lankide: BAIC, Euskadiko Adimen Artifizialaren Zentroa, eta BCAM, Matematika Aplikatuaren Euskal Zentroa. Ekitaldi hau lagungarri da kasu praktikoen bidez berrikuntza gizarteratzeko; izan ere, beste erakunde batzuk berritzaile bultzatzen eta kutsatzen dituzte kasu praktikoko horiek.

Ilido horretan, Innobasquen berrikuntza bultzatzeko egiten dugu lan, Euskadiko erakundeek eta lurraldearen egungo eta etorkizuneko lehiakortasunerako tresna izan dadin.

Erakundeek lehiakortasuna eta biziraupena azkar aldatzen ari den ingurune baten bilakaeraren menpe daude; izan ere, ingurune horrek, egoerari erantzutera edo aurrea hartzea behartzen ditu erakundeak, eta, horrenbestez, eragin nabarmena du haien funtzionamenduan. Beraz, inguruneak eragina du berrikuntzan eta, ondorioz, ingurunea zaintzea ezinbestekoa da, besteak beste, joera eta aldaketan (teknologikoak, arautzaileak, geopolitikoak) berri izateko, aukera berriak identifikatzeko, arazoak hautemateko, aldaketei aurrea hartzeko, eta, horrenbestez, nola jardun erabaki ahal izateko.

Ingurune aldakor hori ulertzen laguntzeko eta Euskadin berrikuntzaren esparruan horrek zer inpaktu duen jakiteko, **“Innobasque Prospektiba Txostena 2024 - Berrikuntza joerak”**, lana argitaratu dugu, 2019an hasitako serieari segida emanez. 2023an izandako gertakariak egoera gero eta konplexuagoa eta zalantzez beteagoa dela adierazten dute. Hori dela eta, aurtengo txoste-

nak are tarte handiagoa eskaintzen dio ingurunearen azterketari. Era berean, ezaguera kritikoak ere ematen ditu txostenak, ohartzeko adimen artifiziala, jasangarritasuna, lan- eta talentu-dinamika berriak, teknologia kuantikoak eta zibersegurtasun-teknologiak nola ari diren egituratzen etorkizuna eta nola ari diren bihurtzen berrikuntzarako trakzio-elementu ezinbestekoak antolakunde mota orotan, edozein dela ere haien tamaina eta sektorea.

Aurtengo Global Innovation Day jardunaldian adimen artifizialean (AA) eta adimen artifizial sortzailean (AAS) sakondu nahi dugu; izan ere, zalantzarik gabe, gainerako berrikuntza-joeren gainetik nabarmendu dira bi-biak. AAk eta AASk ahalmena dute den-dena iraultzeko: industria-sektoreak, hezkuntza, osasun arloa, zerbitzuak, ikerkuntza eta, oro har, antolakunde guztietan berritzeko dagoen modua.

AA funtsezko bitartekoa da helburu zailen eta era askotako erronken aurre egiteko; esaterako, prozesuen eraginkortasuna, optimizazioa edo automatizazioa hobetzeko, iragarpen zehatzak egiteko edo enpresaren balio-proposamenen edo negozio-ereduan aldaketak edo eraldaketak egiteko.

AASk, berriz, ideia eta kontzeptu erabat berriak sor ditzake, baita egituratu gabeko eduki berriak ere. Hala, ideia, kontzeptu eta eduki horiek izan daitezke testuak, irudiak, elkarrizketak edo bideoak. AAS trebatu eta elikatu egin daiteke, hizkuntzak, giza hizkuntza edo programazio-lengoiak ikaste-ko, baita diziplina konplexuak ikaste-ko ere, hala nola kimika, biologia edo artea.

Datuak funtsezkoak dira horretarako, eta AAren funtzioa izango da horiek interpretatzea, informazioa prozesatzea, jakintzari buruz arrazoitzea eta guri ahalik eta ekintza onenak bueltan ematea, erronka bakoitzari egoki erantzuteko. Funtsezkoa da datuak modu egokian kudeatzea eta gobernatzea; hau da, modu etikoan eta arduratsuan eskuratzen, biltegitratzen eta erabiltzen direla ziurtatzea, eta haien kalitatea, segurtasuna eta pribatutasuna bermatzea.

1. BERRIKUNTZA-KASU PRAKTIKOEN 2024KO DEIALDIA

Berrikuntza-kasu praktikoan 5. deialdia abiarazi dugu Euskadiko erakundeen berrikuntza-esperientziak eta jarduketak ezagutu eta aitortzeko, baldin eta:

- Dagoeneko ezarri badira.
- Emaizak lortu badituzte, beharrei edo erronkei erantzuna ematen lagundu badute edo aukerak baliatzeko aukera eman badute.
- Beste erakunde batzuentzako erreferentzia izan ahal badira.

2. NORI DAGO ZUZENDUTA?

Kasu praktiko bat aurkeztu ahal duen Euskadiko edozein elkarteri, bere izaera juridikoa, tamaina edo jarduera-sektorea edozein dela ere (adibidez, enpresa handiak eta txikiak, elkarteak, eragile zientifiko-teknologikoak, ikastetxeak, erakunde publikoak, interes sozialeko erakundeak, etab.).

3. ZEIN KASU MOTA AURKEZ DAITEZKE?

Aurtengo deialdian, azken 3 urteotan garatutako (2021etik orain arte) **Berrikuntzako kasu praktikoan** bila gabiltza BAIC eta BCAM zentroekin batera. Hauek dira bete beharreko baldintzak edo ezaugarriak:

- **Edozein erakunde motatan ezarrita egotea**, edozein dela ere haien tamaina edo jarduera-sektorea (industria, zerbitzuak, hezkuntza, osasun arloa, energia, garraioa, nekazaritzako elikagaiak, sormen- eta kultura-industriak, eraikuntza, arlo soziala, etab.).
- **Adimen artifiziala (AA) edo adimen artifizial sortzailea (AAS) erakunde hainbat sektoretan nola aplikatzen ari diren erakustea, horien bidez berrikuntzak garatzeko**; AAren edo AASren erabilera hori izan daiteke estrategia zehazteko, eragiketak egiteko, proiektuak kudeatzeko eta planifikatzeko, bezeroekiko harremana bideratzeko... **Eremu** hauetarako aukerak sar daitezke:
 - **Merkatuan bertan edo industrian lehiakortasuna areagotzea**, AA edota AAS arlo hauetan aplikatuta: proiektuen garapenean, produktuetan, ekoizpenean, trazabilitatean, logistikan, kalitatean, energia-eraginkortasunean edo prebentzian, besteak beste.
 - **Beste industria batzuetako lehiakideen etorreraren aurrean prestatuta egotea**, horretarako bezeroak eta merkatuak ezagutzeko eta haien aurreikuspenak eta simulazioak eginez, merketina eta malgutasuna baliatuz, eszenatoki sintetikoak sortuz edo prozesuen optimizazioa bilatuz.

- AA eta/edo AAS aprobetxatuz **sektore berrietan** sartzea, era horretara produktu edo zerbitzuak garatzeko, sektore edo merkatu berriak ezagutzeko eta simulatzeko eta produktuen eta zerbitzuen egokitasuna urruneko sistemaren bidez probatzeko.
- **Negoio- edo zerbitzu-eredu berriak** garatzea.
- **Produktibitatea hobetzea**, informazio-laburpenen bidez edo era askotako edukiak sortuz eta horiek erakundearen hainbat esparrutan aplikatuz, hala nola I+G+b arloan, marketinean edo balio kognitibo askorik eskatzen ez duten eginkizun erreplikakorrak automatizatuz.
- AA eta AAS esparruetan **talentu aditua erakartzeko, gaitzeko eta fidelizatze**ko modu berritzaileak sustatzea.

Horrez gain, honelako alderdiak ere aintzat hartuko dira:

- Kasu praktikoaren oinarrian **datuak modu egokian gobernatu izana**; erabilitako datuak kalitatezkoak direla, eskuragarri daudela eta garrantzitsuak direla ziurtatzeko jardunbide egokiak erakustea, eta, orobat, datuak modu arduratsuan kudeatzen direla frogatzea.
- Datuaren etorkizuneko ekonomiarekin lotura izan dezaketen alderdiak aintzat hartzea, eta **datuen eremuak** sortzeko edo horietan parte hartzeko aukerak kontuan izatea, datu horiek balio-kateko eragileen edo aliatuen artean **partekatzeko**.
- **Kasu praktikoa diseinatzerakoan balio etikoak** aintzat hartzea AAren gobernantza-sistemetan.
- **AAren aplikazioan zer teknologia erabili diren zehaztea**: ikasketa automatikoa edo sakona, testuaren analisia eta meatzari-tza, hitz egiteko moduaren azterketa, lengoaia naturala sortzea, irudien azterketa, AAren bidez prozesuak automatizatzea, ibilgailu autonomoak, konputazio kuantikoa.

4. ONURAK KASU BAT AURKEZTEN DUEN ERAKUNDEARENTZAT

- Kasu praktiko **adierazgarri**enek **Global Innovation Day 2024** jardunaldian parte hartuko dute.
- “Onartutako” kasuak (oinarri hauetako 5. atalean deskribatutako ebaluazioaren arabera) Innobasqueko Kasu Praktikoek Bankuan sartuko dira (**esteka** honen bidez sartu).
- Gainera, Bankuan onartutako kasu guztiei aukera emango zaie adituekin material dibulgatzailea sortzeko (deskargatu adibidea **esteka** honen bidez). Material horrek erraz eta argi jaso beharko du kasuaren deskribapena eta kasua aurkezten duen erakundeak komunikazio-elementu gisa erabiltzeko aukera izan beharko du.
- Azkenik, Bankuko kasu batzuk aukeratu ahal izango dira hedapen-ekintza espezifikotatik parte hartzeko, hala nola beste ekitaldi batzuetan parte hartzeko, elkarrizketetan parte hartzeko edo hainbat euskarriren bidez hedatzeko (webgunea, sare sozialak, email bidezko marketina...).

5. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak honako irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

EDUKIA ETA BERRIKUNTZAREN KUDEAKETA (50 puntu)	
IZAERA ESTRATEGIKOA (16 puntu)	<p>Kasuak erantzuten al dio erakundearen erronka edo helburu estrategiko bati? Esperientziak ez du saiakera isolatua izan behar; izan ere, erakundearen helburu estrategikoei erantzun beharko die. Ildo horretan, modu positiboan baloratuko da esperientzia I+Gko estrategia bati lotuta egotea eta aurretik garatu diren I+G proiektuen emaitzetatik eratorritakoa izatea.</p> <p>Ba al du abian jartzeko baliabiderik? Esperientziak helburuak lortzeko behar besteko baliabide material, tekniko, finantzarioak ditu, bai eta giza baliabideak ere.</p>
SORMENA (10 puntu)	<p>Zenbateraino da berritzailea eta originala kasua fase bakoitzean? Hau da, aurkeztutako esperientziaren diseinuan, ezarpenean, hedapenean edo jarraipenean sormenarekin lotutako alderdiak.</p> <p>Sormena “berrikuntza baliagarri bati” lotu beharko zaio, berria edo bakarra izango den eta desberdintzea eta onura ekarriko dituen zerbaiten bidez.</p>
ELKARLANA ETA HIBRIDAZIOA (8 puntu)	<p>Elkarlanean egiteko jarduera al da? Tokiko edo nazioarteko zein sektore eta/edo teknologia al-reko erakundeekin egin da lankidetzat? Zergatik? Lankidetzan berritzeak ez du esan nahi elkarrekin lan egitea bakarrik, inplikaturako alde guztien helburuekin bat datorren irtenbide berritzailea sortzea baizik. Horretarako, ziurtatu egin behar da alde guztiak prest daudela garapenean modu aktiboan inplikatzen, elkarrenganako konfiantza oinarri duten espazioak sortzeko eta arau argiak ezartzeko, lankidetzat eraginkorra izan dadin.</p> <p>Hibridazioa modu positiboan baloratuko da, hau da, lankidetzat-erakunde edo arlo teknologiko desberdinetako erakundeen artean sustatzen dela, balio-ekarpen handiagoa duten berrikuntzak egiteko aukera ematen baitu. Horrez gain, nazioartean aurrez egindako I+G proiektuetatik eratorritako lankidetzat izatea baloratuko da.</p>
JARRAIPENA ETA SISTEMATIZAZIOA/AUTOMATIZAZIOA (6 puntu)	<p>Kasuak ba al du garapenean eta emaitzen jarraipena egin, horiek kontrolatu eta ebaluatzen dituzten sistemarik? Jardueraren sistematizazioa noizbehinkako esku-hartze isolatuen gaineratik baloratuko da, bai eta ezarri ondoren haren automatizazioa edo autonomia aurreikusi izana ere.</p>
IRAUNKORTASUNA ETA IKUSGARRITASUNA (10 puntu)	<p>Kontuan hartu al da esperientziaren iraunkortasuna, diseinutik hasi eta ezarri bitartean eta epe ertain-luzean bideragarria izatea ahalbidetuko dion ingurumen, ekonomia eta/edo gizarte ikuspegitik? Esperientzia berritzaile bat “iraunkorra” da baldin eta egungo beharrak asetzen baditu, etorkizuneko beharrei erantzuteko gaitasuna zalantzan jarri gabe eta bideragarritasunari eutsiz.</p>

EMAITZA (50 puntu)	
ERAGINKORTASUNA (10 puntu)	<p>Egiaztatuta geratzen al da kasuak ezarritako helburua bete eta nahi den emaitza ematen duela? (adib., salmenten igoera, bezero berrien sarrera, kostuen murrizketa, KPlen betetze-maila, etab.)</p>
EFIZIENTZIA (10 puntu)	<p>Aurreikusten diren emaitzak ahalik eta baliabide gutxien erabilita erdiesten dira?</p>
ERAGIN-MAILA (12 puntu)	<p>Kasu honek eragin positiboa al du balio-kate osoan (langileak, bezeroak, hornitzaileak, etab.)? Horrez gain, ematen al die baliorik beste erronka edo kolektibo batzuei?</p>
ERREPLIKATZEKO/TRANSFERITZEKO GAITASUNA (12 puntu)	<p>Erreplikagarria eta antzeko helburuetara egokitzen duen moduko beste erakunde, egoera edo testuinguru batzuetan? Esperientzia erreplikatu edo transferitu daiteke antzeko ekimenak eta jarduerak garatzeko erreferentzia gisa balio duenean eta arrakastatsua izateko aukerak dituztenean, jatorrizkoa ez den testuinguru batean.</p>
BESTE BATZUEN AINTZATESPENA (6 puntu)	<p>Hirugarren batek aitortu al dio arrakastatza? (adib. sariak, albisteak, ekitaldi nabarmenetan parte-hartzea, etab.). Kanpoko mailan gertaera frogagarriekin jakinarazi den eta aintzatetsi den balioesten da.</p>

INNOBASQUEK jasotako kasu guztiak aztertu eta ebaluatuko ditu.

1. **"Onartutzat"** joko dira deialdi honen ezaugarriak bete eta gutxienez 50 puntuko balorazioa lortzen duten kasuak (25 puntu Edukiak eta Kudeaketa atalean eta 25 puntu Emaizak atalean).

Onartu ez diren kasuek jakinarazpena jasoko dute eta zer irizpide ez dituzten bete azalduko zaie.} Adibidez, aurkeztu den kasua ez bada abian jarri edo ezarri azken 3 urteetan (2021-gaur egun).

2. Onartutako kasuak aurkeztu dituzten erakundeekin **egiaztatuko** dira dokumentazio- eta hedapen-prozesua hasteko;
3. Egiaztatu ondoren, **"kualifikatutzat"** joko dira 75 puntu baino gehiago dituzten kasuak. Zehazki, 35 puntu baino gehiago eskuratu behar-ko dituzte Edukiak eta Kudeaketa atalean eta 40 puntu baino gehiago Emaizak atalean.

Global Innovation Day 2024 ekitaldian parte hartuko duten kasu adierazgarrienak kasu kualifikatuen artetik aukeratuko dira.

6. NOLA AURKEZTU KASU BAT

Erakundeak Kasu Praktiko Bankuko **"Partekatu zure berrikuntza-kasua"** inprimakiaren bidez aurkeztu beharko du bere kasu praktikoa. Kasuak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira. Inprimakian honako datu hauek eman beharko dira:

1. Berrikuntza-kasu praktikoa

- Erakundearen izena (kasua aurkezten duen erakundearen sozietate-izena) eta logoa
- Langile-kopurua
- Erakundearen jardueraren deskribapena
- Kasuaren izena
- Deskribapen laburra
- Ezarpen-data
- Balizko berrikuntza-kasu praktikoa dela justifikatzen duen arrazoa
- Lehentasunezko arlo teknologikoa: proiektua zein arlo teknologikorekin lotzen den hautatzea

2. Berrikuntza-kasu praktikoari buruzko informazio xehatua

- Aurrekariak eta kasuaren arrazoiak
- Zer erronkari edo aukerari erantzuten dion
- Txertatutako berrikuntzaren eta egindako jardueren deskribapena
- Eragina: lortutako emaitzak
- Erabilitako baliabideak: teknikoak, ekonomikoak eta giza baliabideak
- Zenbait sektoretako beste erakunde, arlo teknologiko edo herrialde batzuekin lankidetzat (BAI/EZ, norekin eta zergatik)

3. Harremanetarako pertsonari buruzko informazioa

- Harremanetarako pertsonaren datuak
- Kasua zabaltzeko baimena

Deialdi honen esparruan kasu praktikoak aurkezten dituzten erakundeek berriazko baimena ematen diote Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziari beren proposamenen edukia, erakundearen logoa eta edozein informazio gehigarri zabaltzeko. Horretarako, baimena sinatu beharko da.

Garrantzitsua da honako hau azpimarratzea:

- Erakunde-talde batek lankidetzan egindako kasuetan, jarduera edo proiektua **behin bakarrik** aurkeztuko da, eta, ahal dela, berrikuntza aplikatzen duen erakundeak aurkeztuko du.
- Edozein erakundek hainbat berrikuntza-kasu aurkez ditzake deialdi berean, betiere proiektu ezberdinak badira.
- Parte hartzen duen erakundeak kasuari buruz emandako informazioaren laburpena deskargatu ahal izango du inprimakiak berak sortuko duen pdf formatuan, emandako datuak berresteko.
- Deialdi honetan aurkeztutako informazio guztia egiazkotzat jotzen da aurkezte soilagatik.

7. DEIALDIAREN EPEAK

Ekainaren

6a

osteguna

Deialdia
erakunde
bazkideei
zabaltzea

Uztailaren

15a

astelehena

Kasurak
aurkezteko
epearen
amaiera

Irailaren

20a

ostirala

Kontraste-pro-
zesuaren
amaiera

Urriaren

18a

ostirala

Emaitzen
jakinarazpena

BERRIKUNTZA-KASU
PRAKTIKOEN
DEIALDIA

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

**GLOBAL
INNOVATION
DAY 2024**